

## BEHAKETA ADIERAZLEAK

### HAURREI DAGOZKIENAK

Haur kopurua. Zenbat haur etorri dira?	
Nolakoak? Aniztasuna, generoa, klase soziala, desgaitasuna, kultur aniztasuna eta familia ereduari dagokionez.	
Nolakoak izan da haurren parte hartzea? Denek parte hartu dute?	
Giroa: eroso sentitu dira? Taldeko dinamika nolakoak izan da? Gatazkak egon dira?	
Hurrek hitzez edo beste lenguaia baten bidez (dinamika artistikoaren bat erabili baldin badugu...) esan dituztenak eta lanketak egiteko hari muturrak izan daitezkeen erregistroa.	
Hitzez ez den beste moduren batera hurrek lanketak egiteko hari muturra izan daitezkeen pistarik eman digute? Komunikazio ez berbalaren erregistroa	

## BEHAKETA ADIERAZLEAK

### NORBERARI DAGOZKIENAK

Nola sentitu naiz, zein emozio izan ditut saioan zehar	
Nola hasi naiz eta nola amaitu dut	
Zein espektatibarekin nator eta noa	
Zer da proiektatu dudana	
Nola konektatu dut hurrekin. Denekin konektatu dut ala ez. Zergatik?	
Espazioan nola kokatu naiz? Non sentitzen naiz erosoan, non deserosoan? Zergatik?	
Dinamikan nola barneratu naiz? Zein izan da unerik atseginena? Zein desatseginena?	
Zertan saiatu naiz eta zer lortu dut?	
Zein ikasketa atera dut?	
Zein behar sortu zaizkit?	

## BEHAKETA ADIERAZLEAK

### TESTUINGURU ERLAZIONALARI DAGOZKIENAK

Haur/haur harremana nolakoa izan da: gatazkak, binkuloak, lotura afektiboak, jolas motak, rolak..

Haur/heldu bidelagunaren arteko harremana nolakoa izan da: nola zuzendu naiz haurrengana, begietara begiratu diet, segurtasuna eskaini diet, esateko zeukatena entzun dut, zein umeri eskaini diot denbora/arreta gehien, zeini gutxien...

Bidelagunen artean nola konpondu/koordinatu gara, elkar enpatiaz entzun dugu, elkar epaitu gara

Haurren familiekin harremana nola joan da: haurra behatzeak eragin ahal du familia epaitzea, aurreiritziak sortu zaizkigu, familietatik bueltan zerbait jaso dugu, badaukagu horretarako kanalik...

## BEHAKETA ADIERAZLEAK

### TESTUINGURU FISIKOARI DAGOZKIENAK

Aukeratu dugun espazioa egokia izan da: behar fisikoak asetu dizkigu, jolas beharrak, mugimendu beharrak, irisgarria izan da guztientzat, proposaturiko dinamikak aurrera eramaten lagundu digu, harremanak eraikitzeke aukera eskaini digu, espazio goxo eta segurua eskaini digu

Aukeratutako materiala egokia izan da, materialen bat faltan bota dugu, aukeraturiko materiala egokitu da haur bakoitzaren beharretara, espero ez genuen erabileraren bat eman diote materialari

Denborak egokiak izan dira, zerbait luzeegi edo motzegi geratu da, patxadaz, lasaitasunez aritu gara ala presaka eta ezin iritsita, behatzeko denbora izan dugu ala dena dinamizatzeko behar izan dugu.

Proposaturiko dinamikak egokiak izan dira, haur guztien parte hartzea ahalbideratu dute.